

Ana Izagirre: Ezer baino lehenago, eskerrik asko hemen egoteko eman didazuen aukeragatik. Askok dakizuenez gurasoen elkartetako lana izan da nire bizitzaren zati garrantzitsua. Eta hala izan da benetan sinistu egin dudalako aspalditik gurasoen partaidetza ezinbestekoa dela gure hezkuntza sistema aurrera eramateko eta eskolen kalitatea sustatzeko.

Eskerrak ere etorritako hizlari guztiei, urtean zehar lan bikaina egiten duzuelako hezkuntzaren alde.

Hasiera emateko, gurasoen ardura da euren haurrak heztea eta haurrak zer egiten duten eta nola hazten diren jakitea. Ardura hori ez da desagertzen haurra eskolara joaten denean; gurasoen ardura da jakitea eskolan zer egiten den eta euren haurrak nola hazten diren.

Gaur, hemen ditugun gurasoek ondo dakite zer den parte hartzea eta laguntzea, badakite euren ardura ez dela haurra eurekin dagoen momentuetara mugatzen, beste esparruak ere euren ardurapekoak direlako. Baina lankidetzak bi norabide ditu. Gurasoak, eskolaren kolaboratzaile dira eta eskola gurasoen kolaboratzaile da. Hau beti al da horrela? Hemen daukagu lehen galdera.

Ziztu bizian bizi garen garai honetan guraso asko kezkatuta daude nahikoa egiten ez dutela pentsatzen dutelako, asko entzuten da gurasoak ez direla arduratzen eta eskolarengan uzten dutela lan osoa. Erruduntasunetik abiatzen dira: seme-alabekin denbora laburra ematen dutela, dena ematen dietela, etxean komunikaziorik ez dagoela... Hori abiapuntu txarra da ongi hezteko eta euren parte hartzea garrantzitsua dela jakiteko. Uste dugu hau gaur zalantzan jarriko dugula.

Hori dena dela eta, askotan gurasoak guraso elkarreterara datoz dekalogoen bila. Irakasleekin hitz egiten dutenean galdetzen diete zer egin behar duten, hamar puntu emanda dena ondo egingo dutelakoan; guraso eskoletara etortzen direnean ere gauza bera eskatzen dute.

Eskolak betetzen al ditu gurasoen nahiak? Zeintzuk dira egun gurasoek ikusten dituzten erronka nagusiak? Zer baliabide ditugu gurasoek horri aurre egiteko? Zein da antolatzeke modurik hoberena? Nola lortu gurasoen inplikazioa?

Eztabaida luzea da baina ziur nago premiak mahai gainean jarriko direla. Honetaz hitz egiteko etorri dira EHIGEko guraso elkarteko lehendakaria, Eskola Txikiak taldeko koordinadoraren lehendakaria, eliz barrutiko ikastetxeetako guraso elkarteko lehendakaria, Euskadiko irakaskuntza libreko ikasleen guraso elkarteen federazioetako lehendakaria, Lauaxeta ikastolako gurasoa eta FAPAE-COAS hezkuntza taldearen lehendakaria.